275. zenbakia 2005eko otsailak 11

# Goierritarra



Xaboi naturalak

Altzaga, Gaintza eta Baliarrain inguruetan

## IBILBIDEAK

natura eta paisaiak



Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

Garai berrietarako
ideia berriak

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN




Kursal
ZENTRO MEDIKUA
943 88 22 51
Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BEROGAS

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

BEROGAR

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK

vegasa

BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK




ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

## BERTSOTAN



Aitzol Munduate

## Sagardotegiak

Denboraldia abian dago
sagardo berri-berria
beste behin ere aseko dugu
gose eta egarria
'txotx' oihukatuz zabaldu zaigu
bizipozen iturria
alaitasuna falta zaionak
badu nora etorria.

Une goxoak gogoratu ta
tristurak basoan ito
ohitura honek jarrai dezala
gure izaten betiko
eguraldia dela ta ez det
aitzakirik jarriko
aurtengo hotzak ahazteko ere
ez da gaizki etorriko.

**Goierritarra**

**HAMABOSTEKARIA**

**Argitaratzailea:**
Goierritarrak Kultur Elkartea

**Urbialde plaza, 7 - behea**
**BEASAIN**

**Posta elektronikoa:**
goierritarra@topagunea.com

**Telefonoak:**
**Erredakzioa:** 943 88 96 12

**Publizitatea:** 607 530 424
647 319 757

**Zuzendaria:** Loinaz Agirre

**Maketazioa:** Mikel Albisu

**Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
**Tirada:** 7.000 ale
**SSN:** 1132-0907
**Lege gordailua:** SS-926/89
**Frankeo kontzertatua:** 37/76

***Goierritarrak** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.*

## AURKIBIDEA

**4. Iritzia:** Jon Ordoñez

**7. Errezeta:** Barazki tartaleta
**Aholkua:** Noiz eta nola erabili zigorra

**8. Kate motzean:** Ainhoa Garmendia

**9. Erreportajea:** Xaboi naturalak

**12. Erreportajea:** Altzaga, Gaintza eta Baliarraingo ibilbideak

**15. Elkarrizketa:** Chiapasen brigadista

**20. Gazteleku:** Beasaingo idazlan lehiaketa

**22. Debaldeko iragarkiak**

**26. Argazki zaharra:** Zaldibitarrak 1948an Arantzazun.

9



12




15



**Goierritarra** Goierriz kanpo jasotzeko tarifak:

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria eta Espainia: | urtean 12 euro |
| Ipar Euskal Herria eta Europa: | urtean 24 euro |
| Europaz kanpo: | urtean 36 euro |

**Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:**

GOIERRIKO UDALAK

*Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain*

EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia



Jon Ordoñez

# Realaren bidea

Zer gertatzen zaio Realari? Inoiz ez bezalako krisian dago. Jose Luis Astiazaran presidenteak berak aste honetan esan du: "Realaren egoera ekonomikoa larria da". Hori ohikoa da gaur egun futbol profesionalean. Espainiako Ligako klub gehienak egoera berean daude, eta batzuk, gainera, etorkizuna saldu dute une honetan zorrei aurre egin ahal izateko. Realean, ordea, ez gaude horretara ohituta. Orain arte beti izan da Reala klub berezia: harrobia zaintzen duena, sustraitua, apala, langilea, adoretsua eta burua galtzen ez duena. Alegia, ez zela Reala klub arrunta. Horrela jaso genuen.

Gauzak aldatu egin dira. Garai batean txikia izan zen kluba, handitu egin zen gero, eta orain nortasuna galtzen ari dela dirudi. Arrazoiak asko izan daitezke, baina fitxaketa politikak eta futbol zelai aldaketak badute zer ikusia. Hamar urte baino gehiago pasatu dira Atotxa utzi eta Anoeta inauguratu zenetik, baina Realak horri oraindik buelta eman ez diolakoan nago. Realeko jokalariek eurek onartzen dute Euskadirekin San Mamesen jokatzea, etxeko taldearen tokian, berezia dela. Asko zor dio Athleticek bere futbol zelaiari; ez bakarrik partida bakoitzean babesten duelako, baizik eta zaleen eta taldearen arteko gertutasuna, fisikoaz haratago, handitzen duelako.

Gertutasuna nortasunaren erroetako bat da, eta berezitasuna beste bat. Zaila da gaur egun klub berezia izatea. Bi modu daude: besteen gainean egotea, Real Madril edo Bartzelona bezala, edo besteengandik bereiztea, Athleticen kasua. Zoritxarrez ez da egon Reala azken urteetan lehen multzoan. 2002-2003 denboraldian Liga irabaztekotan egon zen, baina gainerakoan gehiago egon da besteen azpian, gainean baino. Bereizi ere, objetiboki ez da asko bereizten, akzioak oso banatuta daudelako bakarrik. Atzerritarrak fitxatzea erabaki zenetik, izan dira batzuk onak etorritakoak, baina asko ere gehiago txarrak joandakoak. Eta kluba ez bereizteaz gain, politika horrek zorra ekarri du.

Taldeak badaramatza hainbat urte, Ligako txapeldunorde geratu zenekoa alde batera utzita, distirarik gabe. Kluba, berriz, asko handitu da. Realak Atotxan jokatzen zueneko garaian 12.500 bazkide inguru zituen. Gaur egun kopurua bikoitza da. Gipuzkoak dituen biztanle kopurua kontutan hartuta, bere lurraldean, ikusle gehien biltzen dituzten taldeen artean dago Reala. Horrek agerian uzten du dagoen lekuan egoteko klubak duen neurria. Azken urteetan jauzi handi bat eman du, futbol profesionalak emandakoaren parekoa. Zubietan klub gutxik bezalako instalakuntzak ditu, Realean inoiz ez bezalakoak. Futbolak orain, ordea, behera egin du. Handi egin den klub txikia, beste neurri bat hartzen ari ote da horren ondorioz?

Agian azken urteetan –klub mailan, kirol arloa beste kontu bat da- Reala bere aukeren gainetik egon da. Gorantz egiten denean dena da errazagoa, baina egoerak beherantz egiten duenean nortasunak bakarrik moztu dezake jaitsiera hori. Klubean kezkatuta daude nortasun hori galtzen ari direla ikusten dutelako. Nortasuna ez da bide baten helmuga, bidea bera baizik, eta Reala nortasunik gabe ez doa inora.

***Gauzak aldatu egin dira. Garai batean txikia izan zen kluba, handitu egin zen gero, eta orain nortasuna galtzen ari dela dirudi.***

KEMEN
KIROLAK
Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

ondoeta
GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK
E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
✆ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

# www.jakintza.net



Heziketa euskalduna eta eleanitza

Europan saritutako proiektuak

Kalitatezko hezkuntza

Emaitza bikainak

Irakasleria iraunkorra eta konprometitua

Haurtzaindegia

Jangela

Garraioa

Gure proiektua aurkezteko bilera **otsailaren 16an**
**arratsaldeko 17:30ean Euskaraz**
**arratsaldeko 19:00etan Gazteleraz**
**Haurtzaindegi zerbitzua izango da**

emanlekukoa
ondohasi
ondohezi

jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g - ORDIZIA
943 16 05 40  943 16 16 76
**ordizia@ikastola.net**

# 11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea

**Iraunkortasunaren 12 irizpideak:**

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gainditzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkundea.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoen aurrean.

Hiriko proiektutan herritarren ikuspegia sartzearen ideia zabaldu nahi da, hiriaren garapenean inplikatutako ikuspegi ezberdinen proposamenak planteatu eta bildu ahal izateko. Horretarako, komunikazioa dinamizatzen duen eta Udalaren eta Herritarren arteko distantziak murrizten dituen lan metodologia lortzea litzateke ideala.

Gizarte inplikazio hau lortu ahal izateko, funtsezkoa izango da herritarrei udal konpromezuaren informazioa behar bezala hedatzea, azken batean, informazioa planifikazio on baterako oinarria baita.

Informazioa lortzeko bidea zenbat eta aberatsagoa izan, herritarren inplikazioa lortzeko aukera handiagoa da. Gainera, badago informazio publiko guztia pertsona ororentzat eskuragarri izatea bermatzen duen lege bat.

Parte-hartzea hainbat modutan egin daiteke:

- Elkarte baten bidez
- Boluntarioen herri mailako sarea sortuz
- Iraunkortasuneko Herri Kontseiluaren bidez, etab.

Honela, gizarte osoaren ordezkaritza bermatzen da.

***Informazioa zabaltzeko bideak hiritarren inplikazio eta parte-hartzerako gaitasuna hornitzen du.***



## Parte hartu!

- ✔ Parte-hartzeak arazoen ebazpen eraginkorragoa dakar.
- ✔ Parte-hartzearen bidez, planteatzen diren arazoei irtenbideak emateko aukera zabaltzen da.
- ✔ Jendeak, erabaki baten atzean dauden arrazoiak hobeto ulertu ditzan laguntzen du parte-hartzeak, nahiz hartutako erabakiekin ados ez egon.
- ✔ Parte-hartze prozesuek gizarte integrazioa sustatzen dute, udalerriak sendotu eta egituratuz.
- ✔ Garrantzitsua da parte-hartze mekanismoetan erabakitzen dena kontutan hartzea, bertara joaten direnek motibazioa galdu ez dezaten.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



OKINDEGIA GARIONA

K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta:zuzenki@euskalnet .net
Elosegi, 16 LAZKAO

e txekin

SUKALDEAN

# Barazki tartaleta



**Karmele Arruabarrena**
Izkiña jatetxea
Segura

**Osagaiak:**

**Pasta hautsia egiteko**

- 250 gr. irin
- 125 gr. gurina
- Arrautza bat
- Gatza

**Bexamela egiteko**

- 100 gr. irin
- 120 gr. gurin
- Litro bat esne
- Gatza / Piper hauts zuria

**Barazkiak**

Bakoitzak nahi dituenak: lekak, tipula, piper berdea, piper gorria, txanpinoiak, alkatxofa...

**Pasta hautsia egiteko:** Ontzi batean irinari gatza bota eta sumendi moduko bate egin eta gainean arrautza jarri. Aurrez hozkailutik ateratako gurina gehitu eta dena ondo-ondo landu. Bola egin eta hozkailuan sartu ordu batzutan. Gutxienez ordu pare bat.

**Bexamela egiteko:** Gurina sutan urtu, irina gehitu eta nahastu. Esne epelaren erdia, gatza eta piper hautsa gaineratu eta barilarekin ondo nahastu, ondoren pixkanaka gainerako esnea botatzen joan.

**Barazkiak egiteko:** Juliana eran, fin-fin moztu eta zartagi batetan su fuerte antzean egin.

**Tartaleta osatzeko:** Orea aldez aurretik hozkailutik atera, irina bota mahai gainean eta rodilloarekin orea zabaldu. Tartera batetan jarri eta ertzak moztu. Bexamela eta barazkiak nahastu, moldera bota, gainetik gazta birrindua bota eta labean sartu, 180º, ordu erdiz.

# Noiz eta nola erabili zigorra

AHOLKUA



**Rakel Amigo**
Psikologoa
Goiklinik

Gurasoen lan garrantzitsuena beraien seme-alabak, hezitzea da. Haurrek beraien jokabidea erregulatzen eta kontrolatzen ikasi behar dute, eta hori muga argi eta egonkorrak ezarriz lortzen da. Dena den, kontuan hartu behar da heldutasun horren arabera. Modu berean, jakin behar dugu haurrek normalki ez dutela beraien 'gaixtakeriak' fede txarrez egiten, baizik eta autokontrola falta dutelako. Egokiena zigorrik jarri gabe hezi ahal izatea izanen litzateke. Berez, askoz ere era eraginkorragoa da jarrera onak indartzea txarrak zigortzea baino. Egia erran, oso zaila da beti hori horrela egitea, beraz, zigorra jartzerako orduan zenbait puntu kontuan hartu beharko dituzu:

- Zigor fisikoa ez da batera eraginkorra hezterako orduan. Haurrak gauzak lortzeko modu bakarra biolentziaren bidez dela ikastea lortuko duzu bakar-bakarrik eta horretaz gain, haurrak ez du bere jarrera autokontrolatzen ikasiko.
- Batzuetan 'Denbora kanpora' delakoa erabiltzea aski izaten da. Metodo honetan haurra egoeratik urruntzen da eta leku zehatz batean denbora batez uzten da. Adibidez, gela batean paretari begira (haurrak duen urte bakoitzeko minutu bat baino gehiago ez zaio inoiz utzi behar).
- Zigorrak jarrera 'txarraren' araberakoa izan behar du eta egoera moldatzeko izan behar du. Hau da, janaria lurrera nahita bota baldin badu, zigorrik eraginkorrena janaria bildu eta zikindu duena garbitzea litzateke. Akatsa gertatu eta berehala jarri behar zaio zigorra. Handik bi egunera zigorra jartzeak ez du ezertarako balio.
- Zigorra jartzen baldin baduzu, ez ezazu bertan behera utzi eta haurrari betearazi. Bestela, sendotasun faltaren irudia emanen diozu eta haurrak ez ditu serioski hartuko zigorrak.



OTEÑE
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabean

Larraitz bidea GAINTZA
☎ 943 88 98 48

## Ainhoa Garmendia, Valenciaga inmobiliaria



# “Oraindik etxebizitzak pezetetan saltzen dira”

**Etxe berria ala bigarren eskukoa saltzen da errazago?**
Etxe berria errazago saltzen da, jendeari etxea estreinatzea gustatzen zaio, baino askotan bigarren eskukoa erosi beharra daukate prezioarengatik.

**Jendeak zer bilatzen du etxea erosterakoan?**
Hiru logelako etxe eguzkitsua, igogailuduna eta terrazarekin bada hobe.

**Nolako etxebizitzak dira saltzeko zailenak? Eta errazenak?**
Jendeak etxe berriak nahiago ditu, baina bigarren eskukoa izatekotan, pisu berrituak saltzen dira errazago. Bulegora etortzen diren gehienek argi uzten digute ez dutela obrarik egin nahi, hau da, pisua erosi eta lehenbailehen bizitzen jartzea da haien asmoa. Beste aldetik esan beharra dago dekorazioak ere asko laguntzen duela lehenengo inpresioa oso garrantzitsua izaten da.

**Etxebizitza erosterakoan zer aholkatzen duzu?**
Lehenengo urratsa profesional on baten eskuetan jartzea, eta beraien aholkuak kontuan hartzea. Bezeroak garbi eduki behar du, zein motatako etxebizitza erosi nahi duen, hala nola lehenengo etxea edo inbertsio moduan den, eta zeintzuk diren beraien aukera ekonomikoak.

**Gazteak zein adinetan hasten dira etxe bila?**
26-28 urtetik aurrera gutxi gora behera. Ikasketak amaitu eta lan finko bat lortu arte, jendea ez da hasten pisu bila.

**Non dago modan etxea erostea, Goierrin eta Goierritik kanpo?**
Nire ustez ez da moda kontua, normalean gehienek bere herrian erosi nahi dute etxebizitza, baina batzuetan lanarengatik edo salneurriagatik mugitzera behartuta daude. Bigarren etxebizitza erosteko orduan, Donostia izaten da tokirik eskatuena.

**Etxebizitzak nola saltzen dira, eurotan ala pezetatan?**
Pezetatan, oraindik ez gara ohitu eurotan hitzegiten, jendeari miloietan hitz egin behar zaigu.

**Etxebizitza gero eta garestiago daude. Norentzat da mauka, inmobiliarientzat ala bankuentzat?**
Nire ustez, mauka jabeen artean banatzen da, etxe berriaren kasuan, lur jabearentzat eta bigarren eskukoetan, haien jabeentzat, bere etxeen balioa asko igo baita. Guretzako hau ez da ona izan, saltzeko zailtasun gehiago dugulako eta produktu garestiago saltzeagatik ez dugu gehiago irabazten, gutxiago saltzen baitugu. Guk egiten dugun lana besterik ez dugu kobratzen.

**Etxebizitza erostea inbertsio ona al da?**
Bai, orain arte ikusi dugun bezala, urte hauetan, etxebizitzaren balioa asko handitu da, bizi mailaren gainetik. Beraz aukera ona izan da epe luzera.

**Etxebizitzak alokairuan emateko kulturarik ba al dago?**
Ez, jendea ez da batere fidatzen, beldur da gauza asko entzuten baita, baina orokorrean ez da arazorik egoten.

**Eta errentan hartzeko?**
Orain erosteko prezioak dauden bezala, gazte asko etortzen zaigu alokairu bila, eta etorkin asko ere prest dago etxea errentan hartzeko.

**Etxea hutsik daukana nola komentzituko zenuke alokairuan jartzeko?**
Ba esango nioke, normalean ez dela arazorik egoten, jendeak alokairua puntual ordaintzen duela, etxea ondo zainduta, eta garrantzitsuena, urte bukaeran diru asko jasotzen dela.

**Zure ametsetako etxea non eta nolakoa?**
Donostian, atiko bat, terrazarekin, itsasoari begira.

goiklinik
osasun zentroa
- Dietetika eta Nutrizioa ........... Tel.: 636 21 82 40
- Psikologia eta Psikomotrizidadea .. Tel.: 656 76 10 40
- Pedagogia eta Logopedia ......... Tel.: 616 24 15 26
- Podologia ..................... Tel.: 635 00 66 30

AndreaMari, 11 - 2. A (Notaria zaharra) - BEASAIN

# Naxari xaboi naturalak

*Nerea Herrarte eta Garbiñe Mujikaren eskutik*



**Duela 2 urte hasi ziren Nerea Herrarte eta Garbiñe Mujika beasaindarrak, liburuan ikasitakoa praktikan jartzen. Xaboi naturalak egiten dituzte osagai naturalak erabiliz eta marrazki eta elementu ezberdinez apaindurik. Artisau azokatan han eta hemen ibiltzen dira xaboiak saltzen eta momentuan gustura daude izandako arrakastarekin. Xaboiaren sekretuak kontatu dizkigute Naxari Xaboiak-eko kideek.**


IÑAKI ARIN
Aseguruak
GENERALI
☎ 943 888 702
Oriako Pasealekua,20
BEASAIN



berriz
AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY
FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTIK BATIK
EARL JEANS
SCOOTER
BEASAIN
DONOSTIA

Donostiako liburutegi batean eskuratu zuten Nerea Herrarte eta Garbiñe Mujikak xaboi naturalei buruzko liburua, duela bi urte. Goitik behera liburua aztertu eta laster hasi ziren etxerako xaboiak egiten eta beste bide batzuetatik, jakintza areagotzen.

Etxerako egiten hasi, baina berehala hasi ziren lagunen artean xaboiak banatzen. Jendaurreko aurkezpena, berriz, duela bi urteko Ordiziako Ertaroko azokan egin zuten. "Ondo saltzen zela ikusi genuen, jendea gustura zegoela", dio Nereak. Harrezkeroztik, Naxari Xaboiak osatzen dute Nerea eta Garbiñe beasaindarrek.



***Nerea Herrarte eta Garbiñe Mujikak xaboi naturalak egiten dituzte, baina, "Honetatik bizitzea oso zaila da. Ondo egongo litzateke jarraitzea eta bidean oztopo gehiegirik ez aurkitzea", diote.***

## Esperimentuak egiten

Hasiera gehienak zailak izaten dira eta olio ezberdinak lortzen izan zuten zailtasun gehien. "Hasieran olio ezberdinak lortzea izan zuten zailena. Koko olioa, yoyoba olioa... belardendetan erosten hasi ginen, kantitate txikiak baitziren hasieran", zehaztu dute.

Teorian ikasitakoa praktikan jartzen eta esperimentuak egiten hasi ziren osagai bat eta bestea nahastuz. Batez ere, olio ezberdinekin hasi ziren probak egiten.

## Osagai naturalak

Xaboiaren osagai nagusienetarikoa olioa izaten da. Olio ezberdin ugari erabiltzen dituzte: koko olioa, oliba olioa, eguzkilore olioa, yoyoba olioa, albarikoke haziaren olioa, almendra olioa...

Olioari beste hainbat osagai ere nahasten dizkie: buztin berdea, kamamila, ahuntz esnea, aloe vera, eztia, kafea, argizaria, hondartzako hondarra...

Usaina eta kolore xaboiaren ezaugarriak ere badira. "Koloreari dagokionez bide naturalen bidez lortzen saiatzen gara gehienetan (aloe-veraren bidez arroxa lortu daiteke, azenario zukuaren bidez laranja, belarren bidez berdea eta abar) beste batzuetan pigmentu kosmetikoak erabiltzen ditugu. Eta usainari dagokionez ahalik eta kimika gutxien erabili nahi dugunez (nahiz NaOH –sosa- kimikoa izan ) ez gara perfumeak botatzearen aldekoak eta noizbehinka olio esentzialak erabiltzen ditugu xaboi batzuei usain "pixka" bat emateko", diote.

## Sendagaiak ez

Nereak eta Garbiñek garbi daukate beraien xaboiak ez direla sendagaiak. "Guk ez dugu osasun arlo hori lantzen. Gure helburua ez da jendea sendatzea. Gure filosofia, gehiago da, artisautza. Xaboiak onak dira, glizerina asko daukate tenperatura bajuan egiten baitira, ez daukate produktu agresiborik. Baina ez dira gaitzak sendatzeko xaboiak. Hori bai, azal koipetsua izanez gero, hobe buztin berdea daukan xaboia erabiltzea. Kalendularekin egiten duguna oso gustura hartzen du jendeak, dermatitisa daukatenentzat".



## Apaindutako xaboiak

Xaboiak egiteaz gain, apaindu ere egiten dituzte. Kolore, forma, irudi... ezberdinak lantzen dituzte, eskulanak oso gustuko baitituzte Nerea Herrartek eta Garbiñe ---k. "Bistari garrantzia ematen diote eta irudimenari lekua uzten dieote.

Kolore ezberdinetako xaboiak, marrazkiak, lore lehorrak, txirlak... denetarik egin eta erabiltzen dituzte. Norberaren gustuko xaboiak egin daitezke, osagai ezberdinak nahastuta, xaboi ezberdinak egin baidaitezke. Enkarguak hartzen dituzte. Hori bai, lau aste aurretik egin behar dira gutxienez.

Ezkontzetan opari gisa banatzeko arrakasta handia dute Naxari xaboiek. Eredu ezberdinak dituzte, txukun-txukun apainduak moldatzen dituzte, bere etiketa eta guzti.

**Xaboiak onak dira, glizerina asko daukate tenperatura bajuan egiten baitira, ez daukate produktu agresiborik. Baina ez dira gaitzak sendatzeko xaboiak.**

Osagaietan xaboi naturalen baldintza guztiak betetzen dituzte, nahiz eta azpiegitura egokirik ez dutelako, osasun erregistrorik ez eduki. "Laborategi bat, kimikari bat... eskatzen dute. Inbertsio handiak dira horiek", dio Nereak. Dena den, zirrikituren bat egongo litekeelakoan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Txekin programan sartuta daude, zerbait aurreratu ote dezaketen aztertzeko. "Beste laborategirekin batekin kontzertatu ote gaitezkeen-edo aztertzen ari gara", diote.

### Prezioan ezin lehiatu

Artisau azoketan ondo saltzen den produktua da xaboi naturala. Hortik aurrera, dendetan adibidez, merkatua zailagoa da, "ezin baitugu prezioekin konpetitu azken finean gurea artisautza baita, goxotasunez eta poliki eginak. Eztei opari gisa ere egiten ditugu baina honetan dabiltzan dendetan sartzea pentsa ezina da. Xaboi asko Indiatik ekartzen dituzte eta oso merke lortzen dituzte".



## Xaboia egiteko prozesua

Xaboia nola egiten ote den jakin nahi izan dugu, nahiz eta jakin badakigun sekretu guztiak ez dizkigutela kontatuko. Nereak eman digu lezioa:

"Sosa, ura eta olioak tenpertura zehatz batean nahasten dira, erreakzionatu eta saponifikazioa gertatzen da, xaboia eta glizerina sortuz. Gero emaitza horri bestelako osagaiak gehitzen zaizkio buztin berdea, aloe-vera, eztia... Batzutan uraren ordez ahuntz esnea edo infusioak erabiltzen ditugu".

Askotan erle argizaria kontserbante bezala erabiltzen dute xaboia gogortu eta antioxidante bezala eragiten baitu.

Xaboia egiteko ordubete nahikoa badute ere, ondoren, lehortzen, gogortzen eduki behar da 4 astez. Hori bai, xaboi puskak, bigarren egunean egin behar dira, gehiegi solidotu aurretik. Marrazkiak, xaboia egiteko momentuan egin behar dira. "Eskularruekin lan egin behar da, xaboiak azidotasun handia edukitzen du-eta", zehaztu du Nereak.

Lehortzen, ilunpetan, eta ahal dela, aireztatutako lekuan eduki behar da.

Bukaerako pausoa izaten da, xaboiak ondo garbitzea. Izan ere, sosa hautsa ateratzen baitzaio xaboiari.

Merkaturatzeko, plastiko gardenarekin biltzen dituzte xaboiak, eta bakoitzari bere etiketatxoa jartzen diote, xaboia zein osagairekin egina dagoen zehaztuz.




autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

**Internet: Zer eskatu behar diot Web garapenerako zerbitzuen hornitzaileari?**

**Zure Web orrialdea sortu nahi?** Hornitzailearekin harremanetan jartzerakoan **jakin beharrekoa** erakutsiko dizugu: nola aukeratu egokiena, bilatzaileen garrantzia...

Goierri - Urola Garaia
otsailak 15
ORDIZIA
Goierri Lanbide Eskola

Ordutegia: 18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak: Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · euskadi · e-gipuzkoa · SPRI

Antolatzailea: Miramon Enpresa Digitala

## Altzaga-Gaintza-Baliarrain arteko ibilbideetan barrena



# Bidez bide, paisaiaz eta naturaz gozatuz

**Kirola eginez, naturaz eta paisaiaz gozatzeko aukeratu ematen dute, Altzaga, Gaintza eta Baliarrain herrien artean dauden mendi-bideek. Hemendik aurrera gainera, aurpegi berriturik ere izango ditugu, azpiegiturak eta seinalizazioak egokitu dituztelako. Altzaga, Gaintza eta Baliarrainen arteko elkarlanari esker, luzera eta zailtasun ezberdineko ibilbideak prest daude. Altzagako eta Gaintzako alkateen esanetan, adin guztietako ibiltarientzako egokiak.**




✆-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

AUSOEGI

ERREFORMAK

- Tximini eta ekonomikak
- Berogailuak
- Iturgintza
- Zeramika erakusketa
- Bainuko altzariak




MUJIKA

LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Altzaga, Gaintza eta Baliarraingo udalen aginduz, Basarte enpresak burutu du mendi-bideen egokitzapena. Aisialdirako eta natura interpretatzeko azpiegiturak jarri dituzte, bertan, kirola egiteaz gain, naturaz, paisaiaz eta aisialdiaz gozatzeko.

Altzaga, Gaintza eta Baliarraingo mendi-bideak, orain arte ere inguruko herritarren pasealeku izan badira, azpiegitura eta seinaleztapena egokituz, jende gehiago erakarri nahi dute Imanol Muxika Altzagako alkateak eta Santi Garmendia Gaintzako alkateak adierazi digutenez. "Paisaia aldetik, interes handikoa da. Goierriko zati handi bat ikus daiteke", gaineratu dute. Aldi berean, hiru herriak ere lotu nahi izan dituzte.

Proiektua gauzatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Erein programatik dirulaguntza jaso dute.



*Imanol Muxika Altzagako alkatea eta Santi Garmendia Gaintzakoa.*

### Seinale eta panel berriak

Bideen seinalizazioari dagokionean, Mendi Federazioaren ibilbideen barruan sartu dira. Ibilbideak pinturaz markaturik daude. Bataz beste, 75 bat metroko seinaleak egongo dira. Bidegurutzeetan poste bertikalak ere jarri dituzte, norabidea eta denbora zehaztuz.

Panelak, berriz, bi eratakoak jarri dituzte. Batetik, herri bakoitzean, sarrerako paneletan, ibilbideen planoa, ibilbideen perfila, deskripzioa, herri bakoitzaren historia, ostatu eta jatetxeen informazioa... azaltzen dira. Bestetik, natura interpretatzeko panel berriak jarri dira. Ibiltariari ingurumeneko hainbat elementuri buruzko informazio emango zaio. Ibilbide bakoitzerako gai zehatz bana aukeratu da. Aukeratutako gaiak, kultura, natura eta paisaia ingurukoak dira. Honela, kirola eta ikaskuntza lotu nahi dira.

**Natura interpretatzeko panel berriak jarri dira. Era honetan, kirola eta ikaskuntza lotu nahi dira.**

### Atseden lekuak

Atsedenerako guneak ere egokitu dituzte. Gaintzan, ur depositauaren ondoan, Altzagan Bostaitzetan eta Baliarrainen San Juan iturrin. Mahaiak, iturriak, haurrentzako jokoak... denetarik aurki liteke.

### Ibilbideak

Adin guztietako pertsonentzako pentsatutako ibilbideak. Neurri eta zailtasun ezberdinetako ibilbide motzagoak edo laburragoak egin daitezke. Dena den, hiru herriak elkartuz, 10 km. pasatxoko ibilbidea ere proposatzen da.

Mendiko bizikletaz ibiltzeko ere aproposak dira Altzaga, Gaintza eta Baliarrain arteko bideak.

Hurrengo orrialdean dituzue ibilbide guztiak eta bakoitzari buruzko xehetasunak.

### Promozioa

Egindako lanari etekina atera nahi diote hiru herrietakoek. Triptikoak egiteko asmoa dute han eta hemen banatzeko. Jubilatuen elkarteetara, eskoletara... bideratu nahi dituzte. Turismoari begira ere lan egin nahi dute.

## Herri txikiak ezagutaraziz

Proiektu honi esker, elkarrengandik hain gertu dauden hiru herri txikiak ezagutzera eman dira. Altzagar, gaintzar eta baliaindarrek, bertako paisajea erakutsi nahi dute, ezaguteraztera eman nahi dute.

Altzagako alkateak azpimarratu duenez, "jendea etortzea interesgarria da herri txikiontzat, herriak ezagutu eta herriko jatetxeetan eta tabernetan kontsumitu dezaten". Gaintzako alkateak gaineratu duenez, "herriari bizitasuna ematen zaio. Jende askok ezustekoa ere eramaten du horrelako paisajearekin".

### Betiko bidea

Betiko bideei itxura berria ematea besterik ez dute egin. Altzagarrak gogoratu duenez, "oraindik ere urte asko ez dela, Baliarrainen goiko baserrietakoak, Ordiziako azokara Altzagaratetik barrena joaten omen ziren".

Gaintzarrak ere gogoratu digu beste bitxikeria bat: "Gaintzako eta Altzagako gazteak erdibidean elkartzen ginen futbolean jokatzeko".

## Neurri eta maila ezberdinetako 7 ibilbide




● **SL 1: Altzagarate-Bostaitzeta-Altzagarate.** 2.345 metroko ibilbidea, ordubete inguruan egitekoa. Zailtasun oso gutxiko ibilbidea.

● **SL 2: Altzagarate-Gurutzea-Kukuleku-Labaki-Bostaitzeta-Altzagarate.** 5.644 metroko luzera duen ibilbidea da honakoa, 2 ordu eta erdian egiteko modukoa. Txindoki mendiaren ikuspegia ikus daiteke bertatik. Ingurumen eta paisaia aldetik, ibilbide interesgarria.

● **SL 3: Baliarrain (San Juan iturria)- San Juan buru-Kuleku-San Juan iturria.** Kilometro eskaseko ibilbidea (1.212 metro). Paisaia aldetik, oso ibilbide interesgarria.

● **SL 4: San Juan iturria-Bizpain-Altzagarate-Gurutzea-Kukuleku-San Juan iturria.** 3.379 metroko ibilbidea, ordu eta erdian egitekoa. Adin guztietarako ibilbide egokia. Natura eta botanika aldetik, interes oso altuko ibilbidea.

● **SL 5: Gaintza-Irazusta goena-Gaztaintxota-Gaintza.** 2.568 metroko luzera duen ibilbidea, ordubeteren bueltan egiteko modukoa. Gora-behera handirik gabekoa denez, oso ibilbide erraza bezala katalogatua dago. Paisaia aldetik, interes handiko ibilbidea.

● **SL 6: Gaintza-Bostaitzeta-Orkaiztegi-Gaintza:** 3.396 metroko ibilbidea, ordu eta erdian egitekoa. Zailtasun oso gutxiko ibilbidea, paisaia aldetik oso interesgarria. Naturako hainbat elementu interesgarri ere ikus daitezke.

● **PR -1: Altzaga-Baliarrain-Gaintza:** 10.560 metroko ibilbidea, 3 ordu eta erdian egiteko modukoa. Ibilbide erraza izanagatik, ibiltzen ohituak dauden pertsonentzako egokia. Paisaia, botanika eta fauna aldetik, intereseko ibilbide bezala katalogatu dute.




VOLVO
ANZIZAR, S. A.
Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea
Beasain-Zumarraga, 46 Km.a BEASAIN
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



GUKlan
BAINUKO OSAGAIAK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA
Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA



# Chiapaseko begiak

## Argider Mujika eta Angel Oiarbide

### 20 egunez bizi izan dira zapastistekin

**Hilabeteko oporraldia aprobetxatuz, Askapena erakundearen bidez, brigadista bezala joan dira Chiapasera, Argider Mujika olaberritarra eta Angel Oiarbide idiazabaldarra. 20 egunez, Apaz herriko zapatista familia batekin bizi izan dira. Beste lan asko egin badituzte ere, beraien egitekoa, nazioarteko begirale izatea zen. Bi goierritarrek azpimarratu digutenez, oso esker oneko dira zapatistak nazioartetik joandakoekin. Brigadisten bidez bertan gertatzen dena nazioartera zabaltzeaz gain, babesa ere sentitzen dute Chiapaseko biztanleek.**

PSIKOLOGI KLINIKOA
APGI
Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN
Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Zunzunegi
Oinetakoak
Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

IÑAUSTI
KARROZERIA
N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA
✆ 943 88 43 01

ikasteknik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain
Ikasketa oztopoak
Diagnosia eta tratamendua
• Test-ak, Frogak • Tailerrak

Chiapasen barrena murgiltzeko aukera izan dute bi goierritarrek 20 egunetan. Zapatista familia batekin bizi izan dira, eta inoiz ahaztuko ez dituzten bizipenak bizi izan dituzte. Komunikatzeko zailtasunak izan badituzte ere, tzotzil hizkuntza hitz egiten baitute eta gaztelera etxeko gizonak bakarrik hitz egiten baitzuen, Chiapaseko errealitatean barneratu dira. Itzuli berritan, esperientzia errepikatzeko prest azaldu dira Angel Oiarbide eta Argider Mujika.

Chiapaseko Cidakatan eskualdeko Apaz komunitatean egon dira. 400 bat biztanleko herria zen. 2.000 metroko altueran zegoen, San Cristobal hiriburutik gertu. "Zapatistak gutxiengoa ziren herria da Apaz. Tentsioa bazegoen herrian. PRI eta PRD alderdi politikoak daude eta zapatisten umeei ez zien eskolara joaten uzten, elizara joaten ere ez. Beraien ermita egin dute zapatistek. Festetan musika dagoenean zapatistak ezin dira joan", azpimarratu du Angel Oiarbidek.



## Berotik hotzera

Eguraldiari dagokionean, horrelaxe izan da bi goierritarren itzulera. Mexikoko eguzkiaren berotik, Euskal Herriko elurretara iritsi baitziren, ordu gutxian. Dena den, iristerako jakin bazekiten, elurtearen berri: "interneten ikusi zuten hemengo egunkarietan, Kontxa zurituta.

### Nazioarteko begiraleen garrantzia

Nazioarteko begirale bezala joan dira, Askapenatik. Angelek ez omen zuen hasieran ondoegi ulertzen begirale huts izate hori zertan zatzan. "Gure galdera zen gure presentzia zenbateraino zen garrantzitsua. Zer funtzio bete behar ote genuen ez geneukan argi. Baina gure ezusterako, guk uste baino askoz ere gehiago eskertzen dute nazioarteko begiraleak han izatea".

Argider Mujikak gaineratu duenez, "nazioarteko begiraleak, presentzia militarra kontrolatzera joaten dira batez ere baina gu egon garen komunitatean ez zegoen militarrik. Baina, gu egon garen lekura, zapatistak ez zirenei, nazioarteko begiak han zeudela adierazteko joaten dira brigadistak".

### Urte Zahar gau ahaztezina

Nazioarteko begiraleek duten benetako garrantziaz, Urte Zahar gauean jabetu ziren. "Urte Zahar gauean, zapatisten altxamenduaren urteurrena ospatzeko, komunitate ezberdinetako zapatistak, Caracolen elkartzen ziren. Gure komunitatetik, gure etxekoak izan ezik, amona gaixo zegoenez, beste guztiak joan ziren. Gu ere joatekoak ginen. Kamioian sartzear geundela, etxeko emakumea eta haurrak etorri zitzaizkigun, mesedez ez gelditiko ote ginen esatera". Goierritarrak horretara etorri zirela eta gelditu egin ziren, inolako galderarik egin gabe.

Gauean giro arraroa somatu zuten, etxean. "Ez ginen ezer galdetzera ausartzen. Etxeko gizona etorri zitzaigun eta orduan kontatu zigun gertatzen zena: zapatista baten umea arratsaldean PRDeko egoitzara joan zela jolasera eta ume horrek bi polizia PRDeko bi militanterekin hizketan

**Gure ezusterako, guk uste baino askoz ere gehiago eskertzen dute nazioarteko begiraleak han izatea.**

ARRIETA
JATETXEA
Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak... era guztietako
☎ 943 88 00 02
OLABERRIA

zeudela ikusi zuen. Gau hartan, gure etxera sartu, gizona, Mariano, hartu, herri erdian zegoen kartzelara eraman, handik PRDeko egoitzara eraman, han epaitu eta hil egingo zutela entzun zuen. Haiek bazekiten, herrian zegoen gizonezko zapatista bakarra bera zela. Serio zihoala ikusi genuen, eta lasai egoteko esan genion. Gu han geundela, nazioarteko begiak han zeudela, ez ziela ezer egingo esan genion. Nazioarteko begiraleak babesle bezala hartzen dituzte. Orduan ulertu genuen, zertara joan ginen, eta horregatik behar dira brigadistak. Zerbait gertatuz gero, badakite, nazioartean oihartzuna hartuko duela eta hori ez zaie komeni".

Argider Mujikak gaineratu duenez "zapatista gehienei, militarki ari zaie izugarrizko presioa egiten. Baina gu egon garen komunitatean, ez dute militarren beharrik, PRIko eta PRDeko herritarrek umilatzen dituzte, eurek presionatzen dituzte".

Beraz, bi goierritarrek garbi ikusi dute zapatistek asko eskertzen dutela begiraleon presentzia. "Lehendik ere oztopo asko jartzen badizkiete, gu egongo ez bagina gehiago aurkituko zituztela diote", azpimarratu dute. Bi goierritarrak alde egiterako, beste bi alemaniar iritsiak ziren.

## Indigenak erabat baztertuta

Bi goierritarrek behin eta berriz adierazi dutenez, "jende honekiko dagoen injustizia handia da. Hemendik ikusita, PRIk irabazita, herriak aukeratzen dituztenez, zerbait izango dutela uste da. Baina konturatzen zara, guztia gezur bat dela. San Andreseko akordioa sinatu zuten Gobernuarekin, sindikatuekin eta Elizarekin. Egiten dituzten eskaerak oso-oso sinpleak dira: demokrazia, justizia, osasuna, hezkuntza, etxebizitzak... denentzako eskatzen dituzte. Indigenak baztertuta dituzte eta hala edukitzea komeni zaie. Baztertuta dauzkate baina hauteskundeak iristen direnean, PRIkoak kamioietan etortzen dira eta han sartu eta bozkatzera eramaten dituzte. PRIri bozkatzen ez badie, badakite zerbait gordina gertatutako zaiela".

Zapastiten altxamenduaren ondorioz, dena den, pixkanaka-pixkanaka, gauzak aldatzen ari omen dira. Hala esaten omen zien bertako zapatista batek: "ezjakinak gara baina 1994an erakutsi ziguten justizia eta demokrazia hitzen esanahia". Bi goierritarrek zehaztu dutenez, "mugimendu zapatista ari da lan horretan. Baina Gobernu bati ez zaio interesatzen jendea espabilatzen hastea eta hori moztu nahi dute".

## Egunerokotasunean

Argider Mujika eta Angel Oiarbide, derrigorrik ez bazuten ere, bertakoen bizimoduan guztiz barneratzen saiatu dira. "Etxekoek egiten zituzten lanak egiten genituen: babarrunak bildu, baldeetan ura ekarri, kafea bildu, ermitan komuna eta aulkiak egiten lagundu...".



## Amonaren heriotza

Angel Oiarbide eta Argider Mujika bizi izan ziren etxeko amona hil zen, eurak han zeudela. Gertu-gertutik bizi izan zuten hilen aurrean egiten dituzten erritoak. Kuriosoa irudituta, hementxe bildu ditugu bi goierritarren testigantzak.

"Etxean bertan blokeen eta bi oholen gainean, izara txuri-gorri batean bilduta, jarri zuten hilotza. Burua, txuriz estalita, puntiladun zaku batekin. Hanketan mahai txiki bat jarri eta 3-4 kandela eta loreak jarri zizkioten. Bere ondasunak ere bai", zehaztu du Mujikak. Dena den, harrigarriena zera iruditu zitzaien bi goierritarrei: "amonak egin behar zuen bidaiarako-edo, buru aldean, egunerokotasunean jaten zituzten elikagaiak uzten joan ziren, bai etxekoak, eta kanpotik etorritakoak. Pina, mandarinak, kafea, platanoak, laranjak, edariak... Hilotza etxean egon zen 3 egunetan, kanpotan etorritako jendeak, bertan jan eta edaten zuten. Ehundik gora lagun elkartuko ginen. Platertxo batean, dirua ere uzten zuten". Janari hori guztia, hilerritik itzulitakoan, denen artean banatzen omen dituzte.

Bisitan etortzen zirenek, etxean egiten zituzten otorduak. "Amona hil zenean, Marianok azokatik, 75 oilasko ekarri zituen bizirik. Oilaskoak hiltzea ere nahikoa errituala zen. Gizonek lepoa okertzen zien eta emakumeek, eltzean, ur berotan sartu. Otordu bakoitzeko 15 bat oilasko hiltzen zituzten".

Musikak ere izaten du tartea hildakoaren agurrean. "Bi musika talde ekarri zituzten, hemengo musika taldeek erabiltzen dituzten bafle horiekin, eta elizako abestiak jo eta abesten zituzten".

Etxetik hilerrira, bizkar gainean eramaten dute hilkutxa. "Bidean zeuden kapiletan gelditu, otoitz egin eta abestiren bat abesten zuten. Hilerrian, zuloa, 6 lagunen artean egin zuten. Hori bai, hilkutxa iristerako bukatu gabe zeukaten, baina ez ziren asko larritu. Josten, umeak jolasten... lasai egon ziren". Hildakoaren ondasunak, berarekin batera lurperatu zituzten.

Hiru eguneko dolua egiten dute. "Hiru egun horietan, hilerrian pasatzen da eguna. Emakumeak josten, haurrak jolasten, gizonezko batzuk hilobia txukuntzen...".

Oilarren kukurrukuarekin jaikitzen ziren, goizeko 6ak aldera. Oheratu, berriz, iluntzeko 8ak aldera. "Lurrean lo egiten genuen, denok elkarrekin. Goizean jaiki, guztiak bildu eta gela libre uzten genuen". Taloa, babarruna eta fruta ugari jan zuten, eskuarekin, lurrean eserita. "Hil zen amona ere lurrean egoten zen eserita". Hori bai, bertako arkakuxoek bazka goxoa izan dute Angel Oiarbideren gerri aldean.

Urik ez zuten etxean. Baldeetan ekartzen zuten ura, etxetik 200 bat metrora zegoen putzutik. Argi indarra, bazuten; bonbila bat zuten etxean. Tenperatura aldetik, egunean bero eta gauean, fresko. Tenperatura aldaketa handia izaten zuten. Urtebete bitarteko haurrak, amaren bizkarrean ibiltzen ziren. Handik, lurrera. "Ume haiek ez dira negarrez ikusten eta ez daukate ez txupete, ez jostailu eta ez ezer ez", azpimarratu du Argider Mujikak.

Hausnarketarako balio izan die bi goierritarrei bertako egonaldiak. "Beraiek hain gauza gutxi izanda eta guk hemen hainbeste, ez dakit nortzuk diren zoriontsuago eta zer den hobea".



### Oso umoretsuak

Umoretsu bizi direla diote. "Sintzeroak ere badira, askotan aurpegira barre egiten ziguten". Angelek gaineratu duenez, "hangoak , gu baino zoriontsuago bizi dira. Haiek egiten dituzten barre algarak hemen ez ditugu egiten. Hemen risoterapietara-eta joaten gara barre egitera. Familia giroa ere oso sakona da. Haurrak denen artean zaintzen dituzte. Umeak asko maite dituzte. Denbora daukate elkarrekin egoteko, asko hitz egiten dute, afalondorengo tertulietan adibidez. Guk, hemen, askotan, nahi duguna baina ezin duguna".



Dena den, San Cristobal de las Casas hiriburutik Apaz herrira, kotxean ordubeteko bidea besterik ez dagoenean, ezberdintasun handia aurkitu dute. "Apazen zibilizazioaren arrastorik ez dago, San Cristobal hiriburua, teknologia berri guztiekin hornitua dago".

URRAKI BIDAIAK
OVER Taldea
Zure bidai ajentzia
Kale Nagusia 42, behea BEASAIN
Tel./Faxa: 943 80 40 15 urraki@over.es www.over.es

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK
sukalderik goxoenak
Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

Euskadi 2 0 0 3

PARTAIDE Ikastolak

Ikastolen Elkartea

# SAN BENITO IKASTOLA

## ESKAINTEA

- *D ereduko ikastetxea*
- *Eleanitza*
- *Hezkuntza integrala*
- *0-18 urte bitarteko hezkuntza (HH, LH, DBH, Batxilergoak)*

## ZERBITZUAK

- *Jantokia*
- *Ludoteka*
- *Hizkuntza Eskola*
- *Trinity College London*
- *Guraso eskola*
- *Garraioa*
- *Kirolak*
- *Ingeles udalekuak*
- *Trikitixa eskola*
- *Abesbatzak*

**Euskadi enparantza z/g 20210 LAZKAO**
**www.sanbenitoikastola.com e-mail: lazkao@ikastola.net telefonoa: 943880800**

La Salle Beasain

# LA SALLE SAN JOSE IKASTETXEA

*1909 ezkerotik Herriaren zerbitzuan*

Bai Euskarari Ziurtagiria bai Guk zerbitzua euskaraz

## EUSKAL KULTURA ETA HIZKUNTZAN SUSTRAITUA

- "BAI EUSKARARI" akordioan parte hartzailea
- Euskal Herriko jaiak eta tradizioak bermatuz

## LA SALLETAR ESTILOA

- Kristau eskola
- Frogaturiko pedagogi esperientzia
- Berritzaileak

  Ingelesa 4 urtetik aurrera
  ULISES, OPTIMIS, CREA, IDEAL, FENIX...

Eguneroko ekinean

**telf.** 943 88 01 39

jangela

eskola garraioa

Haurtzaindegi zerbitzua

# Beasaingo idazlan lehiaketako irabazleak

**Otsailaren 6an egin zen Beasaingo Udaletxeko Batzar Aretoan, XV. Beasain idazlehiaketako sari-ematea. Sariak, Gipuzkoa/Donostia Kutxak finantzatu ditu eta saritutako idazlanak Udaleko Euskara-batzordeak argitaratuko ditu. 5 mailatan banatuta, 41 sari eman dituzte. Dena den, Goierriko milatik gora ikaslek idatzi dituzte beraien idazlanak.**



**A maila** (1987 eta 1988 urteetan jaiotako eskualdeko ikasleen artean)

**Olerkian:**

**1. saria:** Xabier Araña Urteaga ('Ihesi'). **2. saria:** Maitane Chaves Sasiain ('Ihesa'). **2. saria:** Ainhoa Jimenez Goñi ('Urperatu'). **Aipamen bereziak:** Aintzane Bengoetxea Zurutuza ('Sentitzeagatik barkatu'). Joseba Lekuona Agirrebengoa ('Amets askeak'). Ibon Iparragirre Iruin ('Zero azpitik bost gradu').

**Hitz lauz:**

**1. saria:** Xabier Araña Urteaga ('Atzo, 2942ko urriaren 4a). **2. saria:** Naiara Garmendia Rodriguez ('Maddi'). **3. saria:** Manex Berzos Irastortza ('CCCXXXIII. 333').

**Aipamen bereziak:** Ainhoa Jimenez Goñi ('Begirada berde'). Aiora Imaz Berasategi ('Heriotzari ihesi'). Garazi Auzmendi Arkarazo ('Askatasunetik ihesi'). Amaia Epelde Lasa ('Iraganarengandik ihesi').



**B maila** (1989 eta 1990 urteetan jaiotako eskualdeko ikasleen artean)

**1. saria:** Irati Irizar Alvarez ('Lehendik zauritua'). **2. saria:** Alberto Iparragirre Rodriguez ('Bukaeraren hasiera, gau beltzetik egunsentira'). **3. saria:** Sheila Zabaltza Maiza ('Jirabira'). **Aipamen bereziak:** Eñaut Agirre Iturriotz ('Infernutik ihesi, paradisura bidean'). Naroa Larrañaga Aldalur ('Arroxa'). Izaskun Vazquez Ortiz de Zarate ('Zigarro baten eta poxpolo baten arteko amodioa'). Ihintza Mendizabal Mendizabal ('Gogoeta').



**D maila** (1991 eta 1992 urteetan jaiotako eskualdeko ikasleen artean)

**1. saria:** Ainhoa Imaz Iturriotz ('Tintazko ipotxak'). **2. saria:** Jon Ruiz de Azua Ruiz ('Sherpa baten gorabeherak'). **3. saria:** Nerea Arbizu Calvo ('Dantzaria nire amets').

**Aipamen bereziak:** Beñat Pecharroman Altuna ('Urbasatik Alkizara oharkabean'). Xabier Rivera Sevilla (Super Tronik 2597 espaziontzia'). Ainhoa De Juan Goikoetxea ('Aitonaren erlojua'). Maddi Otamendi Urbiztondo ('Begirada').



**E mailan** (1993 eta 1994. urteetan jaiotako ikasle beasaindarren artean)

**1. saria:** Eñaut Irastortza Jauregi ('Dragoiaren buztaneko ilea). **2. saria:** Leire Albarran De la Cruz ('Etorkizunaren bila'). **3. saria:** Mikel Etxeberria Okariz ('Niko ordenagailuaren barruan').

**Aipamen bereziak:** Maialen Perez Mujika ('San Martinen ibilaldia'). Amaia Ruiz de Gauna Zeberio ('Izmir'). Miren Zabaltza Maiza ('Esekigailua'). Larraitz Goikoetxea Urdangarin ('Nire amonaren gertaerak').



**F mailan** (1995. eta 1996. urteetan jaiotako ikasle beasdainarren artean)

**1. saria:** Eraitz Saez de Egilaz Ramos ('Zaletasunak'). **2. saria:** Ane Iturtzaeta Agirre ('Tomasa txerriaren gorabeherak'). **3. saria:** Amets Arrospide Zubeldia ('Ganbarako mezua').

**Aipamen bereziak:** Ane Garin Murua ('Antton arrantzalea eta itsasoko sorgina'). Unai Lorenzo Garcia ('Lur txuria'). Amaia Garmendia Beraza (Mikel eta Iñigo abenturak bizitzen'). Xabier Jauregi Mozo ('Ametsen mundua').




FaSH
Nafarroako etorbidea 22-24 Beasain
Tel./Fax 943 08 50 49
fash@euskalnet.net

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390
Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327
San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239
Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak

mazda
Bikar, S. A.
☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



kutxa
gizarte ekintza

# Beasain Kirol Elkartearen mendeurrena

**Beasain Kirol Elkarteak, 100. urteurrena beteko du aurten eta ospakizunetan murgilduta dabiltza beasaindarrak. Garai bateko izaera berreskuratzeko asmoz gainera, kirol ekitaldiez gain, kultura mailako hainbat eta hainbat antolatu dituzte urte guztian.**



## Argazki erakusketa

Beasain Kirol Elkartearen 100 urteak laburbiltzen dituen argazki erakusketa dago ikasgai, otsailaren 13ra arte, Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan. Martxoaren 5etik uztarilaren 31ra bitartean, berriz, Igartza jauregian jarriko dute erakusketa.

100 urteko historian, izen ezberdinak izan ditu Beasain Kirol Elkarteak. Casino de Beasain Sociedad Recreativa y Deportiva izenarekin sortu zen, eta elkartea, kirol moderno ezberdinen gune izateaz gain (atletismoa, mendizaletasuna, ziklismoa, futbola...) kultur ekintzen gune ere izan zen.

1920.eko hamarkadan izena aldatu zuen elkarteak, Beasain Football Club bihurtuaz. Urte haietako elkartea futbolean oinarritzen zen. Eta 1925. urtean Casino Recreativo Beasain Football Club izenarekin gelditu zen.

1936ko gerra garaian gobernu zibilak debekatu eta erregistrotik ezabatu egin zuen elkartea. Baina 1940.eko hamarkadan indarberriturik azaldu zen elkartea Sociedad Deportiva Beasain izenarekin. Oraindik ere Casino izenarekin ezagutzen zen eraikinean zuen egoitza eta kultur ekintzak ere antolatzen zituen (antzerkia, dantzaldia, eta abar).

1960.eko hamarkadan sortu zen ezagutzen dugun Beasain Kirol Elkartea, futbolean oinarritua.

### Ekitaldi ugari

2005 urtea, Beasain Kirol Elkarteari esker, Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, ospakizunez betea datorkigu. Hilean, bi ekitaldi burutzeko asmoa daukate Beasain Kirol Elkartekoek. Jarraian duzue, aurrerapena:

Otsailean, bazkide zaharrenei omenaldia eta Donostiako Orfeoiaren kontzertua.

Martxoan, Josune Bereziarturen eta Edurne Pasabanen hitzadia, eta Xabier Lete eta Karlos Jimenezen kontzertua.

Apirilean, liburuaren aurkezpena.

Maiatzean, profesionalen arteko pilota partidak eta Beasaingo mugen mendi ibilaldia.

Ekainean, futbolari buruzko mahaingurua eta Beasain eta Ordiziako antzerki taldeen emanaldiak.

Uztailean, Su ta Gar, SA, Kepa Junkera, Oskorri eta Luana Lubre taldeen kontzertuak.

Irailean, Reala eta Athletic emakumezkoen partidua eta Tau saskibaloi taldearen bisita.

Urrian, futbol zelai berriaren inaugurazioa.

Azaroan, Ainhoa Garmendiaren kontzertua.

Eta azkenik, abenduan, Benito Lertxundiren kontzertua.

TOLDOS OLANAK AGUSTIN S.L.
Jose Agustin Jauregi
Tel. eta Faxa: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288
Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO
toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

SEGURA IRRATIA
F.M. 89.2
EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr.
LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
TENDINITIS, KIROL LESIOAK.
Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk.
BEASAIN
R.P.S. 213/97

aulia
TOLARE SAGARDOTEGIA
☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA



euskaraz ere,

NATURALTASUNEZ

Euskadiko Kutxan euskaraz arreta ematea ez da beste edozein zerbitzu.
Gure lan egiteko modua da.

*Zurekin elkarlanean*

**CAJA LABORAL**
EUSKADIKO KUTXA

## ETXEBIZITZAK

### salgai

**Itsasondoko San Juan auzoan,** etxebizitza salgai. 680449272.

**Ataunen,** oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, ganbara eta garajea. 666118904.

**Ormaiztegin,** oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai. Sukalde-jangela, 3 logela, bainugela eta egongela ederra. Berogailuarekin. 2 garaje eta 100 m²ko baratza. 635729027.

**Ormaztegin,** erdigunean, etxebizitza salgai. Garajea eta ganbara. 943883209.

### errentan eman

**Nafarroan,** Urbasa ondoan, etxea alokatzen da. 10 lagun edo gehiagorentzako. Ingurune berdea, aparkalekua, barbakoa, txokoa, egongela. 948539381 - 616537765.

**Conil** (Cadiz). Apartamentua alokatzen dut, Bateles hondartzaren ondoan. Guztiz hornitua. 680442668.

**Salou.** Apartamentua alokatzen dut, Jaime I etorbidean, Novelty eraikinean. Guztiz hornitua. Aire egokitua, igerilekua, garajea eta terraza handia. 629989899 - 943814238.

### errentan hartu

**Beasain, Ordizia edo Lazkaon** etxebizitza errentan hartuko luke Goierriko bikote gazte batek. 657796079 - 653738569.

## GARAJEAK

### salgai

**Idiazabalen,** garajea salgai. 656722825.

### errentan eman

**Ordizian,** erdigunean, garaje itxia alokatzen da. 635700560.

## BESTELAKOAK

### erosi

**Bigarren eskuko faxa** erosi edo opari jasoko nuke. 696218195.

**Bigarren eskuko txakur txabola** erosi edo opari jasoko nuke. 696218195.

**Bigarren ordenadore portatila** erosiko nuke. 696218195.

### salgai

**Elurretarako 4 kubierta** salgai. 195-15 4 x 4. 686077121. 18:00etatik aurrera deitu.

**Freestyle-pro snowboard,** umeentzako tabla salgai. 132 zm. Egoera onean. Prezio interesgarria. 616808256.

**Sukaldea** salgai, elektrotresna eta guzti. Altzairuzko kanpaia eta marmolezko enzimera ere bai. Gutxi erabiliak. 660381097.

**Margotzeko** kabina salgai. 2. eskukoa. Echevi markakoa. 10 x 4 x 2,8 neurrikoa. 650206886.

**Kamioi** arina salgai, bere txartelekin. Bolketea ere badu. 943160754 - 651701690.

## PABILOIAK

### salgai-errentan

**Ormaiztegin,** pabilioi industriala alokatu edo salduko nuke. 90 m². Komuna, dutxa eta bulegoarekin egokitua. 943884768. 21:00etatik aurrera deitu.

## LURSAILA

### erosi

**Goierrin,** 5.000 m² arteko lursaila erosiko nuke. 616698236.













## IBILGAILUAK

### salgai

**Peugeot 306** salgai. Diesela. 943800054. 679018184.

**Ford Fiesta 1.1** salgai. 3 ate. B-FY. Zaharra baina martxosoa. 550 euro bakarrik. 943475264.

**Opel Corsa** salgai. 2000 edizioa. 5 atekoa. 55.000 km. Oso egoera onean. 639962850.

**Peugeot 206 GTI 2.0** salgai. 2001. urtekoa. Egoera onean. 660024835.

**Volkswagen Golf IV** salgai. 1.8 turbo GTI, edizio berezia, 2001 urtekoa, 17" llantak, 92.500 km. Egoera oso onean. 696415299 (Jon).

**Citroen Saxo 1.6i** salgai. 1999ekoa. Extrak. 606206157 - 943180376.

**Peugeot 309** salgai. SS-AG. 943890237 - 696273435.

**Opel Vectra 1.600** salgai. 1997koa. 630384721.

**Kawasaki GPZ 500S** motorra salgai. 1990 urtekoa. Gutxi erabilia. Gurpil berriak. Ezin hobea motorrean ibiltzen hasteko. Kofrea eta ixil eskapeak. 2.000 euro. 651705011.

**Opel Corsa dti** salgai. 5 atekoa. 2001. urtekoa. 33.000 km. 620978809.

**Citroen Saxo** salgai. 16 v. Gorria. Extra askorekin. 99. urtekoa. 653735111 - 615878600.

## GALDUTAKO OBJEKTUAK

**Abenduaren 31n** Aizkorriko bidean, (San Adrian baino lehen), Festina ordulari bat galdu nuen. Larruzko uhala eta urre koloreko esfera dauzka. 636244321.

**LG markako memoria stick** grisa galdu da Beasainen. 630737181.

## AURKITUTAKO OBJEKTUAK

**Aizkorritik Urbiarako** bidean kotxeko giltzak aurkitu dira. 943085503.

## LANA

### eskaerak

**Zerbitzaria** behar da asteburuetan. 629160500 - 627122097.

**Emakumea** behar da Beasainen etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko, egun osoz. 637721967.

**Taxi lizentzia** salgai. 679018184.

**Pertsona bat** behar da 2 haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 943085281.

**Haur bat zaindu eta etxeko lanak** egiteko pertsona bat behar da. 943028855. 20:00etatik aurrera deitu.

### eskaintzak

**Neska euskalduna** eskaintzen da arratsaldez edozein lan egiteko. 619601111

**Emakumea** prest dago 9:00etatik 16:00etara edozein lan egiteko. 615700408.

**Debaldeko iragarkiak:**

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com


**ikaskide**
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

**2004-2005 IKASTURTEA**

ESKOLA LAGUNTZA
- Lehen Hezkuntza
- DBH, Batxilergoa
- Moduluak, Zikloak
- Unibertsitate maila
- Talde txikiak

INFORMATIKA-GELA
Otsailean ikastaro berriak!
- Ikastaroak
  - Ingelera
  - Word, acces, excel
  - mekanografia
- Internet

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku



**ALDANONDO GARAJEA**
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
Filtroak, olioa, engrasea
Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak






Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57





SUTAN

**TXIMINIAK**
EGUR BARBAKOAK
TXIMINIA ELEKTRIKOAK
(Irteerarik gabe)
ESTALDURAK
(Harlanduak-simulazioa)

Mugitegi industrialdea, B bidea, 6
URRETXU 665 737 302





**Iñausti**
Hortz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



**Zaldibiako neskak, Arantzazun 1948an**

Zaldibiako Gregori Erauskinek utzi digun argazki honetan, 1948. urtean, Zaldibiako doktrinako ikasleek Arantzazura egindako bidaia ikus liteke.. Don Modesto Mendizabalekin joan ziren 7 eta 14 urteko neskak.

**Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.**

Arraiak parrilan
✆ 943 65 21 76
ABALTZISKETA
ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

LADA
Ssang Yong
ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA
N-1, z/g
Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA
Karnet mota guztiak
Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa
Carrefour merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

KORO
FISIOTERAPIA
ERREABILITAZIOA
Eskatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

**URDANETA EP**
Intxausti Plaza z/g.
Tlfnoa.: **943 88 27 80**
Fax: 943 16 18 16
012279aa@hezkuntza.net

**OIANGUREN BHI**
Altamira Auzoa z/g.
Tlfnoa.: **943 88 08 62**
Fax: 943 16 41 21
012282aa@hezkuntza.net



# ORDIZIAKO ESKOLA PUBLIKOA

## Aukeratu zeurea guztiona







**HAUR HEZKUNTZA**

**LEHEN HEZKUNTZA**

**DBH**

**BATXILERGOAK**

**HEZIKETA ZIKLOAK**

| | |
|---|---|
| *Artile laranja* | 9 cent |
| *Artile urdin argia* | 2 cent |
| *Artile urdin iluna* | 3 cent |
| *Artile turkesa* | 10 cent |
| *Artile arrosa* | 8 cent |
| *Artile horia* | 4 cent |
| *Artile berde argia* | 5 cent |
| *Artile berde iluna* | 6 cent |
| *Artile moratua* | 7 cent |
| *Artile txuria* | 20 cent |
| *Artile granatea* | 5 cent |
| *Artile gorria* | 6 cent |

**3 eraikin**
**1 proiektu**

*Urdaneta - Oianguren eskola euskalduna, anitza eta parte hartzea bultzatzen duena da.*
*Gure hezkuntza proiektua pertsonen heziketa osoan oinarritzen da, bakoitzaren izaera eta egoera kontuan hartuz.*











# Bila itzazu ikastolari eskatzen dizkiozun ezaugarriak





| | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | E | A | S | A | I | N | E | N | E | R | D | I | A | N | E |
| A | N | D | R | A | M | E | N | D | I | K | S | H | O | O | L |
| U | M | E | A | R | E | N | N | E | U | R | R | I | R | A | E |
| K | A | L | I | T | A | T | E | Z | K | O | A | T | E | Ñ | A |
| E | M | O | Z | I | O | Z | B | E | T | E | A | Z | K | Z | N |
| J | A | N | G | E | L | A | X | X | X | X | X | E | A | O | I |
| 9 | E | U | R | O | H | I | L | E | K | O | X | K | T | I | T |
| E | U | S | K | A | L | T | Z | A | L | E | A | O | U | S | Z |
| R | T | U | D | A | L | E | K | U | A | K | Y | A | A | U | A |
| S | O | R | T | Z | A | I | L | E | A | Y | Y | Y | Y | L | A |
| J | W | G | U | R | A | S | O | E | S | K | O | L | A | I | Y |

















**Soluzioak:** BEASAINEN ERDIAN, ANDRAMENDI, UMEAREN NEURRIRA, KALITATEZKOA, EMOZIOZ BETEA, JANGELA, 9 EURO HILEKO, EUSKALTZALEA, UDALEKUAK, SORTZAILEA, GURASO ESKOLA, HITZEKOA, OREKATUA, ILUSIOZ, ELEANITZA.

Beasaingo ikastola

Andramendi. Beasaingo Ikastola - Urbialde 2 z/g - 20200 Beasain • Tel./Faxa: 943 88 96 17
e-posta: beasain@ikastola.net • www.andramendi.com

Ikastolen Elkartea

25 beasain 01